



**LEGAZPIKO
UDALA**



**UDALSAREA
21**

LEGAZPIKO TOKIKO AGENDA 21

2005-2007 EPEALDIRAKO EKINTZA PLANA

► 2005-06-08ko Udalbatzak, aho betez, onartutakoa ◀

Ekintza Planaren Egitura Lerroak, Programak eta Ekintzak

1. Lerro Estrategikoa – GARAPEN EKONOMIKO OREKATUA, EZBERDINDUA ETA IRAUNKORRA LORTZEKO AURRERA EGITEA.

1.1 JARDUERA EKONOMIKO BERRIAK SUSTATZEKO PROGRAMA.

- 1.1.1 Lurraren sustapena bultzatu, eskualde mailan nahiz herri mailan jarduera ekonomiko berriak ezartzeko.
- 1.1.2 Ekintzaile berriei laguntza eskaintzeko zerbitzua.
- 1.1.3 Laguntzak, enpresa berriak eratzeko gastuei aurre egiteko.
- 1.1.4 Prestakuntza-zentroetan nor bere lana sortzeko sentsibilizatu.

1.2. LAN GABE DAUDEN HERRITARREK ENPLEGUA LOR DEZATEN SUSTAPEN-PROGRAMA.

- 1.2.1 Diru-laguntzak, emakume langabetuak eta iraupen luzeko langabetuak kontratatzeko.
- 1.2.2 Enplegua sustatzeko ekintzak, batik bat lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzenduta.
- 1.2.3 Langabetuak teknologia berrietan prestatu.
- 1.2.4 Enplegu-orientazioan eta lan-bitartekaritzan Lanbiderekin eta UGGASArekin lan egin.
- 1.2.5 Prestakuntza, emakume langabetuei zuzenduta.
- 1.2.6 Emakumea lan-merkatuan sartzeko sentsibilizazio-ekintzak.



**LEGAZPIKO
UDALA**



1.3 HERRIKO JARDUERA EKONOMIKOA SUSTATZEKO PROGRAMA

- 1.3.1 Aldiro, egoera sozio-ekonomikoari buruzko txostenak egin.
- 1.3.2 Jarduera Ekonomikoen gaineko datu-basea mantendu.
- 1.3.3 Herriko merkataritza dinamizatzeko jarduerak bultzatu.
- 1.3.4 Merkataritzari Laguntza Teknikoa emateko Kabineteak (MLTK)
- 1.3.5 Enpresa txiki eta ertainei informazioa eta laguntza eskaintzeko zerbitzua.
- 1.3.6 Harremanak erakundeekin nahiz pertsona garrantzitsuekin Legazpiko garapenari buruz hausnartzeko.
- 1.3.7 Enpresa txikiak kudeatzeko ereduetan berrikuntzak indartu: GetKEI proiektua.
- 1.3.8 Enpresetan ingurumena kudeatzeko gaien sentsibilizatzeko eta prestatzeko jardunaldiak antolatu.

1.4 LANDA-TURISMOA ETA TURISMO EKOLOGIKOA SUSTATZEKO PROGRAMA

- 1.4.1 Legazpiko eta eskualdeko balore turistikoak zabaldu.
- 1.4.2 Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren eremuan landa-turismoa garatzeko ekimenak bultzatu.

1.5 TEKNOLOGIA BERRIAK SUSTATZEKO ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEAN SARTZEKO PROGRAMA.

- 1.5.1 Euskadi Plana Informazioaren Gizartean: KZ Gunea zerbitzua.



LEGAZPIKO
UDALA



2. Lerro Estrategikoa – GIZARTERATZEA, ELKARTASUNA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEA.

2.1 OINARRIZKO BALIABIDEEN BERME UNIBERTSALAREN PROGRAMA.

- 2.1.1 Oinarrizko errenta
- 2.1.2 Gizarte-larrialdietarako Laguntzak.

2.2 ARRISKUAN DAUDEN ADINGABEKOAK LAGUNTZEKO PROGRAMA.

- 2.2.1 Babesik gabeko egoera arinean edo neurrizkoan dauden adingabekoekin familiaren esku-hartzea.
- 2.2.2 Babesik gabeko egoera larrian dauden adingabekoekin familiaren esku-hartzea.

2.3 EMAKUMEZKOAK LAGUNTZEKO PROGRAMA.

- 2.3.1 Etxean tratatu txarrak eta/edo erasoak jasaten dituzten biktimei arreta psikologikoa eskaini.
- 2.3.2 Programa osagarria, tratatu txarrak jasan dutenei eskaintzen zaien laguntza psikologikoa osatzeko.
- 2.3.3 Genero-berdintasuna sustatzeko sentsibilizazio-kanpaina.

2.4 ADINEKO PERTSONEN BIZI-KALITATEA HOBETZEKO PROGRAMA.

- 2.4.1 Etxez etxeko laguntza zerbitzua.
- 2.4.2 Etxeko Tele alarma.
- 2.4.3 Laguntza teknikoak.
- 2.4.4 Meazti Etxea, babespeko etxebizitzak.
- 2.4.5 Eguneko Zentroa.
- 2.4.6 Familiei atsedeen emateko programa.
- 2.4.7 Sendian.



**LEGAZPIKO
UDALA**



2.5 EGOERA IRREGULARREAN DAUDEN ETORKINAK LAGUNTZEKO PROGRAMA.

2.5.1 Legezko laguntza etorkinei: informatu eta bideratu.

2.6 GIZARTE LANKIDETZA ETA BORONDATEZKO LANA SUSTATZEKO PROGRAMA.

2.6.1 Laguntzak nazioarteko lankidetzari.

2.6.2 Udalerrian lan egiten duten gizarte arloko elkarteak lagundu.

3. Lerro Estrategikoa – BIZI-AZTURA OSASUNGARRIAK SUSTATZEA ETA KULTUR GARAPENERAKO ETA AISIALDIRAKO AUKERAK HOBETZEA.

3.1 KULTURA ETA HEZKUNTZA SUSTATZEKO PROGRAMA.

3.1.1 Udalerriko kultur elkarteak lagundu.

3.1.2 Irakurmena sustatzeko jarduerak.

3.1.3 Legazpi ezagutzeko eta bertako identitatea indartzeko jarduerak.

3.1.4 Herriko jaiak eta ohiturak gorde eta bultzatu.

3.1.5 Hedapen kulturalako jarduerak: antzerkia, hitzaldiak, musika, ...

3.1.6 Udalerriko ikastetxeei laguntza eskaini.

3.2 KULTURA ETA AISIALDIKO HAUR ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK BULTZATZEKO PROGRAMA.

- 3.2.1 Gazte-Txokoa.
- 3.2.2 Haur-jarduerak oporraldietan (Gabonetako Haur-parkea, Uztaila kulturala)
- 3.2.3 Lankidetzak Hitzarmenak gazte-elkartekin eta musika-taldeekin.
- 3.2.4 Gazteentzako Informazio Bulegoa eta aldizkari elektronikoa.
- 3.2.5 Denbora Libreko Begirale titulua lortzeko ikastaroa.

3.3 BALOREETAN HEZTEKO PROGRAMA.

- 3.3.1 Zine-eskola.
- 3.3.2 Antzerkiak, aktualitate-gaiei buruzkoak.
- 3.3.3 Hausnarketa eta prestakuntza bultzatzeko jarduerak, ikasleei, gurasoei eta hezitzaileei zuzenduta.

3.4 EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEKO PROGRAMA (EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA 2005- 2007).

- 3.4.1 Irakaskuntzan euskararen erabilera bultzatzeko ekintzak.
- 3.4.2 Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea.
- 3.4.3 Familian euskararen erabilera bultzatu.
- 3.4.4 Administrazioan euskararen erabilera bultzatu.
- 3.4.5 Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan euskararen erabilera bultzatu.
- 3.4.6 Enpresa-munduan eta merkataritzan euskararen erabilera bultzatu.
- 3.4.7 Aisialdian euskararen erabilera bultzatu.
- 3.4.8 Kirol-jardueretan euskararen erabilera bultzatu.
- 3.4.9 Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea bultzatu.



**LEGAZPIKO
UDALA**



- 3.4.10 Liburugintzan euskararen erabilera bultzatu.
- 3.4.11 Publizitatean euskararen erabilera bultzatu.
- 3.4.12 Kulturgintzan euskararen erabilera bultzatu.
- 3.4.13 Hedabideetan euskararen erabilera bultzatu.

3.5 KIROL JARDUERAK SUSTATZEKO PROGRAMA.

- 3.5.1 Eskola kirola sustatu.
- 3.5.2 Pertsona helduentzat dauden zerbitzuak mantendu.
- 3.5.3 Aisialdiko kirol jardueren eskaintza zabaltu: Kirola guztiontzat Programa.
- 3.5.4 Kirolean elkartegintza sustatu: Kirol federatua.
- 3.5.5 Igerilekuko instalazioak hobetu.
- 3.5.6 Futbolzelaiko instalazioak hobetu.

3.6 OSASUN PUBLIKOAN ERAGINA DUTEN INGURUMEN-FAKTOREAK HOBETZEKO PROGRAMA.

- 3.6.1 Osasun publikoaren bilakaera kontrolatzeko Osakidetzarekin koordinazioa/komunikazioa ezarri.

4. Lerro Estrategikoa – BALORE NATURALAK, BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA BABESTEAK ETA HOBETZEA.

4.1 NATURAREN ETA PAISAIAREN IKUSPUNTUTIK INTERESA DUTEN GUNEAK BABESTEKO ETA ERABERRITZEKO PROGRAMA.

- 4.1.1 Natur ingurunea babesteko irizpideak Arau Subsidiarioetan sartu.
- 4.1.2 Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren Natur Baliabideak antolatzeko Plana egiteko lanean parte hartu.
- 4.1.3 Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren kudeaketan parte hartu.
- 4.1.4 Zuhaitz Eguna aldiro ospatu.

4.2 BIODIBERTSITATEA ZAINTEKO ETA HOBETZEKO PROGRAMA.

- 4.2.1 Biodibertsitatea zaintzeko eta hobetzeko plana egin.
- 4.2.2 Bertako espezieak landatzeko laguntzak eskaini.
- 4.2.3 Udaleko baso-politika aztertu.
- 4.2.4 Pago motzak baloratu.

4.3 NATUR INGURUNEA ETA EKOSISTEMA URTARRAK BABESTEKO PROGRAMA.

- 4.3.1 Goi-ibarrean nahiz hirigunean, Urola ibaiertzeko bazterrak garbitu eta saneatu (Erreka Eguna).
- 4.3.2 Urola ibaia bertako faunaren espeziekin birpopulatu.
- 4.3.3 Urola Ibaian eta erreka ibaiadarretan landaretza zaindu eta berria landatu.



**LEGAZPIKO
UDALA**



4.3.4 Barrendiolako eta Urtatzako urtegieta-hezeguneetan erabilera desberdinak babestu eta arautu.

4.3.5 Ekosistema urtarren balore naturalak zabaldu.

4.3.6 Industrialdean automobilak garbitzeko dagoen udal-garbitokia egokitu, Ibarra ezer isuri ez dadin.

4.4. NATUR INGURUNEAN ETA NEKAZARITZA ETA ABELAZKUNTZAKO JARDUERAN IRAUNKORTASUN-IRIZPIDEAK SARTZEKO PROGRAMA.

4.4.1 Txabolak berreskuratzeko Plana.

4.4.2 Baserrietan sortutako hondakinak modu egokian kudea daitezela kontrolatu.

4.4.3 Nekazaritzako lurzorua hirigintza-hedapenetik babestu.

4.4.4. Udal-jabegoko mendietarako Euskadiko PEFC baso-egiaztagiria lortu.



LEGAZPIKO
UDALA



5. Lerro Estrategikoa – HIRIGINTZA HARMONIATSUAREN ALDE APOSTU EGIN, HIRI-ESPARRUAREN KALITATEA HOBETZEN JARRAITUZ ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA BULTZATUZ.

5.1 HIRI-ESPARRUAN KALITATEA HOBETZEKO PROGRAMA.

- 5.1.1 Hirigintzako planeamenduan iraunkortasun-irizpideak sartu.
- 5.1.2 Lurzoru degradatuak edo abandonatuak berriro erabiltzea sustatu.
- 5.1.3 Urtatzako parkea hobetzeko jarduketei jarraipena eman.

5.2 AUZOAK BIRGAITZEKO ETA BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK SUSTATZEKO PROGRAMA.

- 5.2.1 Auzoak birgaitu (IZARTU programa)
- 5.2.2 Babes ofizialeko etxebizitzak sustatu.

5.3 KUTSATUTAKO LURZORUAK KONTROLATZEKO ETA LEHENERATZEKO PROGRAMA.

- 5.3.1 Hirigintzako planeamenduan lurraren kalitateari buruzko irizpideak sartu.
- 5.3.2 Lurzorua kutsatzeko arriskua suposatuko duten jarduerak etengabe kontrolatu.
- 5.3.3 COEL lantegi zaharra zegoen orubea eraberritu.

5.4 ONDARE HISTORIKO ETA ARKITEKTONIKOA BABESTEKO ETA BERRESKURATZEKO PROGRAMA.

- 5.4.1 Mirandaolako Euskal Burdinaren Museoa bukatu eta ireki (aurre-industrializazioa).
- 5.4.2 Paper-fabrika eta ingurua berreskuratzeko lanekin jarraitu.



**LEGAZPIKO
UDALA**



5.5 GARRAIO PUBLIKOA HOBETZEKO PROGRAMA.

5.5.1 Udalerrien arteko garraio publikoa hobetzeko ekintzak (Mugikortasun iraunkorraren Plana).

5.6 MUGIKORTASUN IRAUNKORRAGOA ETA IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO PROGRAMA.

5.6.1 Legazpi, Urretxu eta Zumarraga artean oinezkoentzat eta txirringarientzat bidea egokitu.

5.6.2 Pixkanaka, oinezkoentzako errazago igarotzeko diren zebra-bideak egin.

5.6.3 Legazpiko Euskaltegian igogailua jarri.

5.6.4 Udalerrian hainbat oztopo arkitektoniko kendu.

5.6.5 Eraikuntza berrietan eta hirigintzako garapen berrietan irisgarritasunari buruzko legezko arauak zorrotz bete daitezela eskatu.

5.6.6 Mugikortasun-azturak alda daitezen sentibilizatu.

5.6.7 Mirandaolan dauden oztopo arkitektonikoak kendu.



6. Lerro Estrategikoa – NATUR BALIABIDEEN KUDEAKETA HOBETZEA, BALIABIDE HORIEN (URA ETA ENERGIA) KONTSUMOA ARRAZIONALIZATZEA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEA.

6.1 URAREN HORNIDURA ETA ERABILERA HOBETZEKO PROGRAMA.

- 6.1.1 Edateko uraren hornidura-sistemako hodiak etengabe berritu.
- 6.1.2 Udalerriko baserrietan ur-hornidura hobetu.
- 6.1.3 Lantegietako erabilerarako ura zuzenean ibaitik hartzea kontrolatu.
- 6.1.4 Bisita didaktikoak Barrendiolako Ur Edangarria tratatzeko azterlekura (ETAP) eta eskualdeko Ur Zikinak arazteko azterlekura (EDAR).
- 6.1.5 Udal instalazioetan ura modu egokian erabiltzeko eta aurrezteko neurriak hartu.
- 6.1.6 Etxeko uraren kontsumoa gutxitzeko herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak.

6.2 UR SANEAMENDUA HOBETZEKO PROGRAMA.

- 6.2.1 Ur-ihesak dauden tartetean edo euritako ura eta ur zikinak nahasten diren tartetean saneamenduko hodiak etengabe berritu.
- 6.2.2 Futbolzelaitik Txokora doan hodi nagusia aztertu.
- 6.2.3 Lantegiek kolektorera isurtzen dutena etengabe kontrolatu.

6.3 UDALEKO ENERGIA-KUDEAKETAN AURREZTEKO PROGRAMA.

- 6.3.1 Energia-kontsumoaren udalaren kontrola etengabe hobetu.
- 6.3.2 Hitzarmena Energiaren Euskal Erakundearekin, udal eraikinetan eguzki-xafla fotovoltaikoak jartzeko eta energia eraginkorra lortzeko sistemak ezartzeko.
- 6.3.3 Herritarrak euren etxebizitzetan energia berriztagarrien instalazioak jartzeko dauden laguntzei buruz informatu.
- 6.3.4 Ekipo berriak erostean eta udal-instalazioetan obrak esleitzean, energia-eraginkortasunaren irizpideak ezarri.
- 6.3.5 Etxebizitza berriak eraikitzean (batik bat sustapen publikoetan), energia-eraginkortasunaren irizpideak ezarri.



**LEGAZPIKO
UDALA**



6.3.6 Gabonetan herrian jartzen diren argietan, energia-eraginkortasunaren irizpideak ezarri.

6.3.7 Herriko argien sarean argi-kutsadura aurreikusteari eta energia aurrezteari buruzko azterketa egin.

6.4 HIRI-HONDAKINEN KUDEAKETAN IRAUNKORTASUN-IRIZPIDEAK SARTZEKO PROGRAMA.

6.4.1 Hiri-hondakinak gutxiagotzeko Plana egin.

6.4.2 Hondakinak tratatzeko zentroak bisitatzeko programa.

6.4.3 Hiri-hondakinen zati organikoa konpostaje moduan erabiltzeko Plana

6.4.4 Eskualde mailan Hondakinei buruzko Ordenantza egin.

6.4.5 Herritarrak sentsibilizatu, hiri-hondakinak gutxiago sor ditzaten eta gaikako zabor-bilketarako ezarrita dauden instalazioak erabil ditzaten.

6.4.6 Legazpiko Eskola-Agenda 21ean hondakinen kudeaketari buru zegin diren proposamenak garatu.

6.5 HONDAKIN BEREZIAK KONTROLATZEKO PROGRAMA.

6.5.1 Asteroko azokan hondakinen bilketa berezia egiteko Programa.

6.5.2 Hiri-hondakinekin parekagarri diren erakundeetako, merkataritzako eta lantegietako hondakinak (RICIA) baloratu eta gaika bildu, batik bat industrialdeetan.

6.5.3 IHOBE, UGGASA ETA UGISA erakundeekin lan egin, herriko lantegietan iraunkortasun-jarduerak garatzeko.



**LEGAZPIKO
UDALA**



7. Lerro Estrategikoa – AIREAREN ETA SOINUAREN KALITATEAREN KONTROLA HOBETU.

7.1 AIREAREN KALITATEA KONTROLATZEKO UDAL PROGRAMA.

- 7.1.1 Udalerriko lantegietan airera jaulkitzen dena kontrolatzeko neurriak bultzatu.
- 7.1.2 Udalak jasotzen duen industriako isuri atmosferikoen gaineko informazioa koordinatu.
- 7.1.3 Airearen kalitatea eta herritarrek arnastutako airea eten gabe kontrolatu.

7.2 UDALEKO ZARATAREN KALITATEA HOBETZEKO PROGRAMA.

- 7.2.1 Industria-instalazioetatik eta bestelako jardueretatik (ostalaritza,...) sortutako zarata udal mailan kontrolatu.

8. Lerro Estrategikoa – UDAL KUDEAKETAN KALITATEA ETA IRAUNKORTASUNA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEA.

8.1 GARAPEN IRAUNKORRARI BURUZKO POLITIKAN UDAL-KOORDINAZIOA (BARRUKOA NAHIZ ERAKUNDEEN ARTEKOA) HOBETZEKO PROGRAMA.

- 8.1.1 Udal barruko koordinazioa hobetu, horretarako Garapen Iraunkorrerako batzordea erabiliz.
- 8.1.2 Mankomunitateko egituretan parte-hartze aktiboa sustatu.
- 8.1.3 Industria-jarduerak kontrolatzeko gaietan, Ingurumen Sailburuordetzarekin informazioa elkar trukatzeko eta komunikatzeko sistemak hobetu.

8.2 UDAL KUDEKAETAN IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK SARTZEKO PROGRAMA.

- 8.2.1 Kontratazio-orrietan eta kanpoko zerbitzuen emakidetan iraunkortasun irizpideak sartu.
- 8.2.2 Produktuak erostean eta hornitzaileak hautatzean udal mailako politikan iraunkortasun irizpideak sartu (Erosketa berdea)
- 8.2.3 Udal mailan, Ingurugiroa kudeatzeko Sistemen esperientziak garatu (Ekoscan)

8.3 UDAL KUDEAKETAN HERRITARREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO PROGRAMA.

- 8.3.1 Agenda 21eko Foroa dinamizatu.
- 8.3.2 Herritarren parte-hartzea lortu, herriko jaiak eta tradiziozko ekintzak antolatzeko eta diseinatzeko.
- 8.3.3 Legazpiko ikastetxeen Estola-Agenda 21 programarekin jarraitu.
- 8.3.4 Legazpin, parte-hartze eredua aztertu.



**LEGAZPIKO
UDALA**



8.4 HERRI-IRAUNKORTASUNARI ETA INGURUMENA BABESTEARI BURUZKO GAJETAN HERRITARRAK SENTSIBILIZATZEKO PROGRAMA.

- 8.4.1 Tokiko Agenda 21 zabaldu.
- 8.4.2 LENBUR Fundazioarekin lan egin, eskualdearen eta bertako balio naturalen berri emateko.
- 8.4.3 Herriko elkarteekin lan egin, herritarrak iraunkortasunari buruzko gaietan sentsibilizatzeko.
- 8.4.4 Urtero Aste Berdea ospatu.

8.5 KUDEAKETA PUBLIKOAREN PROZESUAK HOBETZEKO PROGRAMA.

- 8.5.1 Udal-espeditentek kudeatzeko sistema hobetu.
- 8.5.2 "Herritarren Ataria" martxan jarri.
- 8.5.3 Kexak eta eskariak jasotzeko programa hobetu.
- 8.5.4 Eskualdeko Turismo bulegoa kudeatzeko sistema hobetu.